

argitalpena

Lucio Urtubia elkarrizketatu dute Errenteriako 'Lau Haizetara'-n

Duela 69 urte Cascanten (Nafarroa) jaiotako anarkista elkarrizketatu dute Errenteriako *Lau Haizetara* aldizkarian. Parisen anarkismoa ezagutu ostean, anarkista honek inork sinetsiko ez lituzkeen bizipenak ezagutu zituen, gehiegikeriak jasaten zituztenen alde borrokan. Haren biografia aurkeztu dute duela gutxi Errenterian.



Argitaratzailea: **Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte**

landarea

Asparagus densiflorus, Hegoafrikatik datorren esparrago-landarea

Argitasun handia behar du landare honek. Ordea, eguzki-galgatan ez da eduki behar. Jatorria Hegoafrika dauka, eta negu partean kontuz ibili behar da tenperatura hotzekin. 3-4 urtetik behin zatitu eta lur berria jarri behar zaio. Pujak zahartu eta horitzen direnean, ipurditik ebaki behar dira, kimu berriak gara daitezen.



EGUNKARIA

musika

AIA. Akelarre. Bihar, San Pedro auzoan, gaueko 22:00etan.

AIZARNAZABAL. Ostolaza eta Andonegi. Gaur gauean, erromeria.

ANDOAIN. Mikel Artieda Trio. Gaur, Itzala tabernan, gaueko 23:00etan.

AZKOITIA. Juan Andres Unanue. Gaur, gaueko 22:30ean, Plaza Berrin kitarrajole azkoitiarraren kontzertua.

BARAKALDO. Vhalbemar, Ssufering Down. Gaur, gaueko 21:30ean, Errekaortuko gaztetxean.
Skalariak. Gaur, gaueko 23:00etan, herriko plazan.

BASAURI. Trombumba. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, tronboi kontzertua Begoñako Andra Marin.

BELAUNTZA. M-n Ezten. Gaur, gaueko 22:30ean, plazan.

BILBO. Arraizpe abesbatza. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Errekalde auzoko elizan.

Preludio. Gaur, gaueko 23:00etan, erromeria Errekalde auzoan.

DURANGO. Los Huevos de Kinder, Soga 74. Gaur, gaueko 22:00etan, gaztetxean.

Tamboro Mutanta. Gaur, gaueko 23:00etan, Argentinako emakume perkusiojoleak alde zaharrean.

EIBAR. Ateneo. Gaur, gaueko 00:30ean, dantzaldia Amañako plazan.

ELORRIO. Mikel Urdangarin. Gaur, gaueko 22:30ean, Ispilue diskoaren aurkezpena.

Ensamble Nuevo Tango. Gaur, gaueko 22:30ean, Elizpean.

Zea Mays, Etsaiak, Mallacan. Gaur, gaueko 23:00etatik aurrera, gaztetxean.

ERANDIO. Ene Bada. Gaur, gaueko 22:30ean, Goierri auzoan.

GETXO. Iñaki Salvador Quintet. Bihar arte, gauero 23:00etan (Bihotzalai plazako kontzertua bukatzerakoan), Algortako La Gramola tabernan.

The new wave New Orleans brass band, Amama Luisa & Dixielangileak. Bihar arte, *Maching Band*-en kalejirak kaleetan barna.

Magnus Lindgren Quartet. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Algortako Getxo antzokiko plazan.

U-street All Stars, Martial Solal Trio. Gaur, gaueko 21:30ean, Algortako Bihotzalai plazan.

HAZPARNE. Deabruak

musika

EH Sukarra, Irailerako 6 Igorren (00:00etan)



GARI GARAIALDE

EH Sukarra taldeko kideak.

EH Sukarra eta Irailerako 6 Igorreko San Kristobal auzoan

EH Sukarra Eibarko talde beteranoa gogor ari da azkenaldian. Euskal Herria sukartzen jarraitzen dute, dudarik gabe. Gaurkoan, Irailerako 6 taldea izango dute lagun, Igorreko San Kristobal auzoan, gauerditik aurrera.

teilatuetan. Gaur, gaueko

22:30ean, gaztetxean.

HERNANI. Laiotz. Gaur, Oialumen (Martindegi auzoa), 00:00etan.

IGORRE. E.H. Sukarra, Irailerako 6. Gaur, 00:00etan, San Kristobal auzoan.

IRUÑEA. Rally. Gaur, arratsaldeko 20:00ean, erromeria Antoniutti parkean.

Voz for noche, Haizald. Gaur, gaueko 23:00etan, gaztetxean.

Oskorri. Gaur, gauerdian, Media Luna enparantzan.

Oropendola, Alain y Son la Clave. Gaur, gauerditik aurrera, Gaztelu plazan.

Los fabulosos Cadillacs

Arcanda. Gaur, goizeko 01:00ean, Foru enparantzan.

Tapia ta Leturia laukotea. Bihar, gauerdian Media Luna enparantzan.

KOARTANGO. Egan. Gaur, gaueko 00:30ean, Zuhatzuko jaiak ospatzeko.

LEIOA. Anestesia, Baikor. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Udondo gaztetxean.

LESAKA. Tximeleta, La Nuestra fanfarea. Gaur, gauean, Plaza Zaharrean.

Gaubela, La Nuestra fanfarea. Bihar, gauean, Plaza Zaharrean.

MUNDAKA. Hemendik At. Gaur, arratsaldean eta gauean.

MUTRIKU. Herriko musika banda. Gaur, 23:00etan, Txurruka plazan.

ORIO. Jazzmagnac. Gaur, 23:00etan, Salatxo tabernan.

SESTAO. Sr. No, Rose Tatto. Gaur, hilerri atzeko zelaian, Fantasy Show Bike ospakizuna dela medio.

SORALUZE. Tapia ta Leturia laukotea, Pomada (Katalunia). Gaur, gaueko 23:00etan, San Andres auzoko jaiak direla eta.

ZALDIBAR. Son Caliente. Gaur, gaueko 22:30ean, erromeria eta 'Cuba linda' ikuskizuna.

Sekula Santan, Ainke. Gaur, 23:00etan, txosnetan.

ZUMAIA. Luhartz taldea. Gaur, Narrondo auzoan, dantzaldia.

antzerkia

AMOREBIETA-ETXANO.

'Pajarraca'. Gaur, gaueko 22:00etan, Zubiondo plazan, Vagalume taldearen eskutik.

BERGARA. 'K.O.' Bihar, arratsaldeko 19:00etan, kale antzerkia San Martin plazan, Picor

Teatro taldearen eskutik.

BILBO. 'Misterio prospero'.

Gaur, eta bihar, gaueko 22:00etan, Felipe Lozaren eskutik, La Fundación aretoan.

DONOSTIA. Macrea Jazz,

Humor. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, kafe antzerkia egongo da Altxerri galerian.

LEGAZPI. 'Mirandaolako ikuskizuna'. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Mirandaolako Olan, Lembur fundazioaren eskutik.

ZORNOTZA. Vagalume Teatro taldearen emanaldia. Gaur, gaueko 22:00etan, Zubiondo plazan.

bertsolaritza

BELAUNTZA. Jon Maia, Oihane Enbeita, Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze. Bihar, plazan, bazkalondoren eta arratsaldean.

BERRIZ. Mañukorta eta Xabier Amuriza. Bihar, San Pedro txiki auzoan.

LESAKA. Bertso-jaialdia: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Igor Elortza, Juan Jose Etxabe, Amets Arzallus, eta Xabier Silveira. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Plaza Zaharrean. Gai jartzaile: Estitxu Arozena.

MUNDAKA. Bizkaiko bertsolari gazteak. Gaur, eguerdiko 12:00etan.

dantza

ARAMAIO. 'Sutargi' ikuskizuna. Gaur, gaueko 22:30ean, Kultur Etxean, Aukeran Dantza Konpainiaren eskutik.

Sutargiren aurre-estreinua izango da.

BARAKALDO. 'Las mentiras del entusiasmo'. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Barakaldo antzokian, Damian Muñozen eskutik.

'Boj de largo'. Gaur, eguerdiko 13:00etan, CEDEMIn, Ion Munduateren eskutik.

MUNGIA. Beti Jai Alai taldea.

Gaur, 23:00etatik aurrera, Matxin enparantzan. Hauek bukatzean, nazioarteko beste talde batek ere joko du.

SESTAO. XV. Folklore

erakustaldia. Gaur eta bihar, arratsaldeko 19:30ean, Los Hermanosen.

ZALDIBAR. Dantza erakustaldia. Gaur, arratsaldeko 19:15etan Olazar pilotalekuan; errunbak, karibear, sevillar eta saloiko